

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

354

Uztailak 15, 2019

- 
- 2** Irun Atzo Irun Gaur
 - 3** Berri laburrak
 - 4** Ekintzak Irunen
 - 5** Dies Oïassonis
 - 6** Kolaborazioa: Acubi
 - 7** Kolaborazioa: Joseba Aurkenerena
 - 8** Kirolak: Bidasoako jaitsiera
 - 9** Kirolak: Hondarribia Arraun Elkarte
 - 11** Haurren leihoa / Denborapasak
 - 12** Euskara Irunen barrena / Gazteen lanak
 - 13** Beti Gazte: Ribera bekak
 - 14** Gazte Informazioa
 - 15** Agenda

Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?

1919 urteko uztailaren 20ean argitaratutako El Bidasoa astekarian Irunen eta inguruko herrietako jai eta bestelako nobedadeen inguruko hainbat albiste irakur daitezke. Zerbakiari hasiera ematen dion artikuluko batean Irunen udalak haur eta adineko pertsonentzako babes-etxe bat eraikitzeko proiektuaren inguruan hitz egiten da. Jarrain, eskualdean hegazkingintzarekin loturiko albiste ugari bildu dira. "Anotaciones de un Chismoso" atalean, berriz, Pi y Margall plazan egin den dantzaldiaren kronika irakur daiteke. "El Busto de Leguía" tituluaren azpian Beran egingo den ekitaldi baten inguruko albistea irakur daiteke, non egitarauaz eta inguruko herrien parte-hartzeaz hitz egiten den. Ondoren, Frantziaren uztailaren 13tik 15era ospatutako Garaipenaren Jaiak aipatzen dira ere. Azkenik, "Satarrka"-k sinatutako olerkia irakur daiteke "Onena" titulupean lehen orrialdearen amaieran.

Bigarren orrialdearen hasieran "RE-LA-MI-DO"-k Irunen egiten den musika heziketa zalantzan jartzen du. Berrero Hendaian ospatuko diren jaien gaia berreskuratzen da, jaien harira antolatuko diren kirol ekintzen emaitzak komentatzeko. Elizondoko Santiagoko jaien inguruko artikuluko bat irakur daiteke zerbaki honetan ere, non aurten jaiak ostiralean izango direla azaltzen den. Horren ostean, Stefanai pianojole ospetsuak Kasinoan eskainitako kontzertuaren kronika laburra ageri da. Azkenik, kontsultategiak tuberkulosia pairatzen duten gaixoak tratatzeko egiten ari duen lana goraiatzen da hurrengo albistean.

Ondoren, Hendaiaiko Ondarraitz hondartzako kasinoan Stade Hensayais kirol elkarteak antolatutako ekitaldiaren berri ematen da. "Notas municipales" tituluarekin udalaren inguruko azken nobedade eta albistek errepasatzen dira. "Hace años..." atalean 1883ko El Bidasoa astekarian argitaratutako albistek gogora ekartzen dira. Berri labur batzuk, galdutako objektuen iragarki eta Erregistro Zibileko nobedadeak errepasatzen dira, "Ecos de sociedad" atalaren ostean, zerbakiari publizitate iragarkiekin amaiera emateko.

G38590: Zabaltza plaza 1910 edo 1920 hamarkadan, non Pi y Margall plaza bezala ezaguna zen.

G55545: Kasinoa eta Hendaiaiko hondartza XX. mendearen hasieran.

G10831: Irungo Gurutze Gorriko kontsultategian neskak klaseak ematen 1958 urtean.



G38590



G10831



G55545

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Publizitatea:

Amaia Terrazas
(amaia@irunero.eus)
Ion Otxoa
(ion@irunero.eus)
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Eskolako materiala hiriko dendetan erosteko laguntzen seigarren edizioa izango da aurtengoa

Irungo Udalak eskolako materiala hiriko dendetan erosteko eskaintzen laguntzen seigarren edizioa izango da aurtengoa. "Erosi eta Ikasi" programaren eskaera-epea uztailaren 2an ireki zen eta irailaren 30era arte irekita egongo da. Hezkuntza arloak gogorarazi duenez erosketak egiterakoan fakturak eskatzea ezinbestekoa da laguntza eskatu ahal izateko. Programaren edizio berri honek 200.000 eurotako aurrekontua izango du.

Laguntzak Irunen erroldatutako haurren familiei zuzendurik daude, zehazki, Derrigorrezko Hezkuntzaren barnean, Lehen Hezkuntzan edo DBHn ikasketak gauzatuko dituzten ikasle horiei. Diru-laguntza honen bitartez joan den urtean 1.422 familia laguntzea lortu zen, guztira 154.000 eurotako zenbatekoarekin. Juncal Eizaguirre Hiri Bultzada ordezkariak azaldu duenez, "hiriko familientzako babesa emateaz gain, Irungo komertzioetako kontsumoa dinamizatzeko pentsatuta daude ere laguntza hauek".

Diruz lagunduko diren gastuak berberak izango dira; idazteko materialak, suntsikorrak edo ez suntsikorrak, hala nola, koadernoak, orriak eta abar, sailkagailuak, plumierrak, kalkulagailuak, konpasak, bizkar-zorroak, testuliburuak eta abar. Ikastetxeetako uniformeak edo Hezkuntza Fisikorako arropa zein oinetakoak, eskulantako elementuak, Arte Hezkuntza, Hezkuntza Plastikoa eta Ikusizkoa, Teknologia edo Musika (argizariak, olioak, margoak, pintzelak). Diruz lagundu ahal izango diren gastuak eskola-materialak erosteagatik sortuak izango dira, eta betiere Irungo dendetan edo ikastetxeetan erosiak badira 2019ko ekainaren 21etik irailaren 30era bitartean.

Diru-laguntza horiek emateko, iaz bezala, hiru tarte egongo dira, eta tarte horiek errentaren arabera izango dira; hau da, familiak duen diru-sarreraren arabera baliteke norbait deialditik kanpo geratzea, laguntzaren zati bat kobratu ahal dutenak eta %100 jasoko dutenak ere bai. Adingabe bakoitzeko diru-laguntzak 100, 75 edo

50 eurokoak izango dira.

Eskaerak, aurten errazago

Simplifikatu egin da eskaeren sistema aurten. Iaz eskatutako dokumentazioarekin batera, etxebizitza berean inskribatutako pertsona guztien aldetik, espresuki adierazitako baimena eman behar zen. Oraingo honetan izapide hori ez da beharrezkoa izango. Eskaera egiteko tresna Irun Txartela izango da; hori dela eta, Udalak herriarrak animatzen ditu txartel hori HAZen kanaletik eskatzera.

Eskaerarekin batera, gastua justifikatzen duten uztailaren 2tik irailaren 30era arteko fakturak aurkeztu behar dira. Fakturak egoitza elektronikoa eskaneatuta eman ahal dira, udal webean aurkitu ahal duten dokumentazio guztiarekin batera, eta horrez gain, oinarriak eta deialdi honen informazio guztia ere bertan aurkituko dute.


Hondarribia kalearen berritze lanak guztiz amaitu dira azkenean

Hondarribia kalearen berritze lanak guztiz amaitu dira azkenean. Errepidea eta espaloia eraldatu dituzten obrak aspaldi amaitu bazin ere, auzoaren apainketa laguntzeko elementu guztiak kokatu dira azkenean. Auzoa zeharkatzen zuen errepidea oinezkoentzako espazio gisa moldatu ostean, bi elementu nagusik apainduko dute hiriaren bazter berri hau: murala eta eskultura.

Itxura berri honetara batu den azken elementua eskuan maleta bat duen aita eta alaba bat rakusten dituen eskultura izan da. "Fundición Artística Jaizkibel" tailerraren sorkuntza bat da eta eskultura honen bitartez, XX. mendean hasieran hirira iritsi eta auzo zein hiria eraikitzen lagundu zuten etorkin familiei omenaldia egin nahi zaie. Brontzezko eskultura bat da eta murala kokaturik da goen plaza berean egongo da ikusgai aurrerantzean.

Murala maiatzaren hilabetearen amaieran amaitu zen eta hilabete hauetan zehar auzotarrak pozik agertu dira plaza berri honen itxurarekin. Muralaren sorrerarako "trampantojo" izena duen teknikaren bitartez bi eraikin eta eskailera bat irudikatzen dira, efektu optikoaren laguntzaz kaleari zabaltasun gehiago emanez. Muralaren sorreran arduraduna Arte y Muralismo estudioa izan zen.



 Ana Eguiazabal

Pertsonak zein taldeak kohesionatuak, zoriontsuak eta motibatuak izatea funtsezkoa da proiektu/enpresa baten etorkizuna bermatzeko!

www.anaeguiazabal.es
info@anaeguiazabal.es

- ✓ Saio individualak
- ✓ Egokitutako tailerrak
- ✓ Taldeentzat prestatutako tailerrak

Ekintzez betetako agenda udako hilabeteetarako Irunen



Uztaila eta abuztuko hilabeteetarako ekintza kultural ugari antolatu dira Irunen. Aire zabalean egingo diren dantza eta zinema emanaldiek protagonismo berezia izango dute udako agenda kulturalaren barnean. Hortaz gain, Euskal Jira edo Faisaien Uharteko Bakarrizketen Jaialdia urtero errepikatzen diren data esanguratsuenetako batzuk izango dira.

Udako hilabeteetan zehar egingo diren ekintzak ezagutzera emateko zabalgarri bat banatu da Irungo auzo guztietako establezimenduetan zehar, bi hilabete horietako ekintza guztien zerrenda biltzen dituen. Juncal Eizaguirre kultura ordezkararen hitzetan, "udaran hiriaren erritmoa ez da gelditzen eta horren erakusleak dira udalak edo hiriko entitate sozial eta kulturek uztaila eta abuztuko hilabeteetarako prestatu dituzten ekintzak".

Uztaila

Udako ekintzen egitarauaren barnean, era askotariko proposamenak eskaintzen dira aukeran: musika, zinema, antzerkia, erakusketak, etab. Uztailaren 11tik 14era bitarte egingo den Dies Oiassonis jaialdi erromatarraz gainera, aire zabaleko zinema saioak uztaileko hilabeteke beste hitzordu garrantzitsuetako bat dira. Mota horretako 3 saio egingo dira uztaileko hilabeteetan zehar, guzti horiek, gaueko 22:00etan. Uztailaren 5ean eskainitako "Los increíbles 2" pelikularen ostean, uztailaren 19an

"Guardianes de la galaxia" filmaren txanda izango da. Uztailaren 26ko saioa berezia izango da, izan ere, Grease pelikula zuzenean ikusteaz gainera, Skola Music taldeko ikasleek pelikulako doinuak zuzenean interpretatuko baitituzte. Abuztuan, berriz, 16ean "Tadeo Jones 2. El secreto del rey Midas" eta 23an "Paddington" filmak ikusi ahalko dira Junkal plazatxoan.

Bestetik, aire zabaleko ekintzekin jarraituz, Eskoleta kalean "las amistades de Gertrudis antzezlanak ikusi ahalko da uztailaren 17an 20:00etatik aurrera. CBA liburutegiak AcustiCBAs zuzeneko musika emanaldi laburren programari eutsiko die, uztailaren 18an 19:15etan Psicoacoustic taldearen kontzertuarekin. Haurrentzako Girabira programak saio berriak eskainiko ditu udaran zehar, uztailaren 20ean 18:00etatik aurrera Soroxarta parkean argazkilaritzaren inguruan egingo den tailerrarekin. Erakusketei dagokionez, Menchu Gal aretoan Gentz del Valle erakusketa ikusgai egongo da irailaren 8ra arte eta Oiasso Erromatar Museoa Jose Latova: argazkilaritza arkeologikoaren 40 urte erakusketa eskainiko du uztailaren 22ra arte.

Hortaz gain, urteroko hitzorduak errepikatuko dira uztaileko hilabeteetan zehar, adibidez, Urdanibia Berri, Santiago, Behobia edo Elitxu-Lapitze auzoetako jaiekin. Gainera, uztailaren 30ean Behobiako San Martzialeko Bigarren Guduaren plazan Faisaien Uharteko Bakarriz-

keten Jaialdiaren edizio berri bat antolatuko da JJ Vaqueoren emanaldiarekin.

Abuztua

Euskal Jira izango da abuztuko lehen asteburuko ekintza nagusia. Urdanibia plazan kontzertu ugari izango dira, lehena, "Golden Apple Quartet" taldea abuztuaren 24ean 22:00etan eta abuztuaren 30ean, berriz, 22:00etan "Mandragora Negra" taldea. Eskoleta kalean 20:00etatik aurrera ekitaldi ugari egingo dira: abuztuaren 1ean Patón bikotearen emanaldia, abuztuaren 8an euskaraz egingo den clown antzerkia eta 22an Amaia Elizaran eta Myriam Perez Cazabon konpainiaren dantza emanaldia. Era berean, Bidasoako Mugaz Gaindiko Partzuergoak Bidaso Folk jaialdiaren barnean antolatutako Pedro Guerraren kontzertua abuztuaren 17an 22:00etan hilabeteke beste hitzordu garrantzitsuetako bat izango da. Abuztuaren 10ean Bildumagileen Azoka eta 14ean Remember taldeak Zabaltza plazan eskainiko duen kontzertua ekintzen agenda osatuko dute. Abuztuko hilabeteetan ere hiriko auzo ugari jaiak ospatuko dira, hala nola, Ama Xantalen, Arbes eta Kale Nagusiko jaiak. Erakusketetan, berriz, 18cm izena daraman erakusketa izango da ekintza nagusia, abuztuaren 23tik irailaren 8ra Amaia Kultur Zentroan ikusgai egongo dena. Gainera, Girabirak 9an arratsaldeko 20:00etan zinema protagonista gisa izango duen ekintza prestatuko du.



Fernando
Vergara
argazkilaria

Letxumborro hiribidea 100,2ª
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com



Dies Oiassonis jaialdiak erromatar giroa zabalduko du Irungo kaleetan barrena uztailaren 11tik 14era



Dies Oiassonis jaialdiak erromatar giroa zabalduko du Irungo kaleetan barrena uztailaren 11tik 14era. Jaialdi erromatarra hiriko udarako ekintza jendetsuenetako batean bihurtu da eta X. edizioa ospatuko du aurten. Oiasso museoaren inguruan 50 postu baino gehiago izango dituen merkatu erromatarraz gain, Dies Oiassonis jaialdiaren barnean beste hainbat ekintza antolatuko dira.

Zirku Erromatarra

Hirugarren urtez, San Juan plazan Zirku Erromatarren ikuskizunaz gozatu ahalko da uztailaren 10etik aurrera Irungo Turismo Bulegoan sarrerak eskuratuz gero. Emaldiak uztailaren 12an, ostiralean, 22:00etan, uztailaren 13an, larunbatean, 18:00etan eta 22:00etan, eta, uztailaren 14ean, igandean, 13:00etan eta 18:00etan izango dira. Sarrerak 4 eurotako prezioa izango du, gaueko emaldiaz gozatzeko sarrera, berriz, 5 eurotako izango delarik.

Birsorkuntza historikoak

Egun horietan zehar Oiasso museoaren kanpoaldean hainbat birsorkuntza historiko egingo dira. Cohors Prima Gallica birsorkuntza historikoko taldeak lehen aldiz parte hartuko du Dies Oiassonis jaialdian, garai azpi-imperialeko legionarioen kanpamendu bat birsorkuntzarako larruzko denda eta soldaduen armamentuaren bitartez. Hortaz gain, maniobra militarren eta bizitza zibilaren birsorkuntza historikoak egingo dira ere. Honela, soldadu mota ezberdinak eta borroka estrategiak gertutik ikusi ahalko dira. Gainera, familia patrizio bat ezagutzeko au-

tera izango da ere.

Prozesioa

“Navigium Isidis” prozesioa erromatar jaialdiaren barneko beste ekintza jendetsuenetako bat da. Prozesioa uztailaren 13an, larunbatean, egingo da, arratsaldeko 19:30etan nabigazio garaiaren hasiera erromatarrek nola ospatzen zuten erakusteko eta, bertan, Irun eta Hondarribiko elkarte ugarietako kideek parte hartuko dute.

Arte eszenikoak

Dies Oiassonis programaren barnean arte eszenikoekin loturiko ekintza anitz antolatu dira ere. Uztailaren 12an, ostiralean, 22:30etatik aurrera Verbo Producciones taldeak “Los Gemelos” antzezlanaren aurkeztuko du publiko helduari zuzendurik. Uztailaren 13an, larunbatean, berriz, 13:00etan eta 17:00etan egingo diren bi saioetan “Gladus y Medulina” txotxongiloen antzerkiak gozatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren familiek. Azkenik uztailaren 14ean eguerdiko 12:00etan Ezezagunik taldearen eskutik “La pax y otras lunas” antzezlanaren eszena ikusiko da.

Ekintza gastronomikoak

Jaialdiaren aurreko edizioetan antolatutako hainbat ekintza gastronomiko errepikatuko dira aurten ere. Alde batetik, Irun Dastatu plataformak hainbat esperientzia gastronomiko antolatu ditu Felix Manso (uztailak 9, 19:00etan), Ola Sagardotegia (uztailak 10, 19:00etan), Bidasoa Basque Brewery (uztailak 11 19:00etan) eta Paperino (uztailak 12, 17:00etan) establezimenduetan.

Bestetik, uztailaren 12an 21:00etan Gourmet Afaria egingo da Oiasso Museoaren kanpoaldean. Afarian izena ematen dutenek, 20 euroren truke Danako, Manolo, Altzola eta Ogitxuk prestaturiko jakiak dastatuko dituzte 8 pintxo osaturiko menu batean. Sarrerak uztailaren 5tik eskuratu ahalko dira Irungo Turismo Bulegoan.

Azkenik, uztailaren 13an 11:30etatik aurrera Oiasso Museoaren kanpoaldean egingo den Showcooking-ean erromatar elikagaietan oinarritutako pintxo sorterra ikusi ahalko da zuzenean, ostean pintxoak etxean egin edo Irungo komertzioetan dastatu ahal izateko.

Bestelako nobedadeak

Aipatutako ekintzez gain, uztailaren 12an 19:00etan Nesto F. Marques idazleak “Fake news de la Antigua Roma” lana aurkeztuko du Oiasso Museoeko Portu aretoan sarrera librea izango duen ekitaldi batean. Bestetik, berrikuntza gisa, San Marcial Txingudiko igerileku-eremuan itsasoko arkeologiarekin loturiko zabalpen zientifikoko ekintza bat egingo da. Ekintzak bi saio izango ditu uztailaren 14ean, 11:30etan eta 16:00etan. Ekintza doakoa bada ere, igerilekurako sarrera ordaintzea ezinbestekoa izango da eta saio bakoitzean 36 pertsonentzako lekua egongo da. Azkenik, Dies Oiassonis jaialdiaren harira hiriko hainbat komertzioek haien erakusleihoak kutsu erromatarrekin apaindu dituzte uztailaren 4tik aurrera.



Merkealdiak Euskadin



Orain arte udako merkealdiak Euskadin uztailearen 1etik aurrera hasten ziren, merkealdi garaiaren hasiera eta amaiera Autonomia Erkidego bakoitzak zehazten zituelarik. Legearen arabera, merkealdien iraupen minimoa aste batekoa eta gehienez bi hilabeteetako izan behar da eta dendak produktuen erdien prezioa gutxienez jaistera beharturik daude.

2012 urtean, berriz, Gobernuak merkealdien arautegian aldaketa bat ezarri zuen eta 20/2012 errege-drekretuaren bitartez merkealdien inguruko mugak ezabatu ziren. Honela, dendek salmenta ordutegi askatasuna eta merkealdiak eta deskontuak edonoz egiteko aukera eskuratu zuten. Hala ere, Euskadiko dendek gehiengoak data horretara arte erabilitako merkealdi-daten hasiera erabiltzen jarraitu du: neguko merkealdien hasiera urtarrilaren 7an eta udako merkealdiak uztailearen 1ean.

Merkealdiak betidanik erosketak burutzeko garai aproposa izan dira, zentzu komuneko jarraibide batzuk kontutan hartuz gero: Zentzuzko aurrekontu bat finkatzea, erosketa zerrenda bat egitea, deskontuaren zenbatekoa eta produktuen kalitateaz ziurtatzea.

Merkealdietan erosketa probetxugarria egiteko aholkuak

Merkealdi garai behar den bezala probetxuzko lehen aholkua gehienezko au-

rrekontu bat zehaztea da, erosi beharreko produktuekin zerrenda bat osatzeaz gainera. Orokorrean, merkealdiak prezioaren jaitsierarekin loturik daude, ez kalitatearen murrizketarekin, beraz, aurretiaz dendan salgai egondako produktuak izan beharko lirarteke, hondatu gabeak.

- Etiketak ondo begiratu, prezio bikoitza: Kartel erraldoietan iragartzen diren deskontu handiak beti ez dira dendako produktu guztietan aplikatzen. Horregatik, interesatzen zaigun produktuaren etiketa ondo begiratu behar dugu prezio zaharra eta berria edo beherapenaren zenbatekoa ondo ikusteko. Ziurtatu gaur egungo artikulua bat dela. Ehungintzako produktuetan neurria, konposaketa eta garbiketa eta lisatzeko aholkuak agertu behar dira.

- Kreditu-txartelaren bidezko ordainketa ziurtatu: Kreditu edo zordunketa txartelaren bitartez ordaintzeko asmoa izanez gero, diru-muga zentzuzko bat ezarri behar dugu horretara egokitzeko, izan ere, txartelarekin ordaintzerakoan egiten ari garen gastuaz ohartzea zailagoa da. Merkealdi garaian dendek txartel bidezko ordainketa ez onartzeko aukera dutela jakitea komenigarria da, nahiz eta arau horretaz era ikusgai batean ohartzea beharrezkoa den.

- Kalitatea egiaztatu: Merkealdietan saltzen diren artikuluen kalitatea ona izan behar da eta, gutxienez, salmenta arrun-

tean egondako artikulua izan behar dira merkealdien aurretik gutxienez hilabete bateko epean. Akatsak dauzkaten produktuak salgai-hondar edo likidazioetan saldu ahal dira soilik, ez merkealdietan. Hala ere, artikulua erosi aurretik ondo aztertzea komenigarria da.

- Garantia murrizketarik ez onartzea: Berme Legeak ez ditu oporrak hartzen merkealdi garaian. Data honetan produktu berriek bi urteetako bermea dute eta bigarren eskukoek, berriz, urte batekoa. idatziz edo iraupen luzeko euskarri batean garantiaz zehaztea ezinbestekoa da iraupen luzeko produktuen kasuan (etxetresna elektrikoak, erremintak, altzariak, jostailuak, instrumentuak, ...).

- Erosketa ticketa edo ziurtagiria gordetzea: Erosketa ziurtagiriak gorde, bakoitzari dagozkion zergekin. Akastun produktu edo behar bezala ez dabilzan produktuen kasuan erabili ahal dira erreklamazio bat egin ahal izateko.

- Produktuak aldatu edo itzultzeko aukerarengatik galdetu: Bai merkealdietan zein gainontzeko egunetan, dendak artikulua aldatu edo dirua bueltatzera beharturik egongo da produktuak akatsen bat duenean edo dendak produktua itzuli edo aldatzeko aukera iragartzen badu kontsumitzailearen aldetik inolako justifikaziorik beharrezkoa izan gabe. Etxez etxe edo distantziara egindako salmenten kasuan kontsumitzaileak erosketa batean atzera egiteko aukera izango du soilik, produktua itzuli eta dirua berreskuratuz, justifikaziorik gabe eta 14 egun naturale-tako epean. Edozein kasuan, produktu bat eskuratu aurretik artikulua aldatu edo itzultzeko aukerarengatik galdetzea go-

mendatzen da, nahiz eta produktua egoera onean egon, denda batzuek aukera hori ematen dutelako.

Merkealdi, likidazio eta salgai-hondarren salmenten arteko desberdintasunak

Legeak hiru aukera hauek ondo bereizten ditu:

Salgai-hondarren salmenta

Merkatuko balioa galdu duten produktuak, kaltetu edo zaharkiturik egoteagatik, betiere kontsumitzailearentzako arriskurik suposatzen ez dutenean. Diru bezala iragarri behar dira eta saltzailearen eskuetan egon behar dira gutxienez 6 hilabete lehenago.

Likidazioak

Salbuespenezko izaera duen, erabaki judicial batetik sorturikoak, jardueraren etetea, adarra edo lokalaren aldaketa, obra, ... eta helburua lokalean aurkitzen diren produktu guztiei irteera bat ematea da. Artikuluak aurretiaz salgai egon behar dira edo prozesuaren gehienezko iraupena gehienez 6 hilabeteetako izan behar da. Partziala edo erabatekoa izan daiteke.

Merkealdiak

Urtaro edo denboraldi aldaketarengatik prezioan beherapenak dauzkaten produktuak dira. Merkealdietan eskaintzen diren produktu guztiak aurretiaz dendan salgai egondakoak izan behar dira eta ezin dira hondaturik egon. Dendak gutxienez produktuen erdian beherapenak izan behar ditu. Merkealdietarako bereziki ekoiztutako produktuen salmenta debekaturik dago.

Pausuko Xaia ostatuak laster 100 urte

Joseba Aurkenerena



Ibaiaren ertzetan, Lapurdi eta Gipuzkoa bereizten diren bazterretan eta Nafarroa Garaitik ez sobera urrun den bailaran, denetariko gertakizunak, denetariko istorio eta pasadizoak izan dira, ibaiaren alde batean zein bestean. Pausu lekua izan da beti, onerako eta txarrerako, merkataritzarako eta gerlarako. Euskal Herrian muga gaizto hori ezarri ziguten frantses eta espainiarrek ere, ainitzetan baliatu zuten alde batetik bestera indarrez igartzeko eta sekulako triskantzak eta erailketak egiteko.

Hortxe dago Intzura irla, gaur faisaiena ere deitua, non frantsesek eta espainiarrek, bertan bilduta eta euskaldunon kalterako, haien arteko estatu muga madarikatua hitzartu eta ezarri zuten. Behobia edo Pausu izenez eza gututako lekuaz hizketan ari natzaizue, jakina!

Behobia izenaren erranahiaz badira hainbat teoria. Batzuen ustez, behor ibia omen da, hau da, behorren pausu bidea; besteen ustez, berriz, beheko ibia litzateke toponimo horren jatorria, eta goiko ibia, aldiz, Hondarribia, hau da, hondarrezko ibia edo pasabidea.

Behobia Bidasoa ibaiaren bi aldetan zabaltzen zen, eta bi ertzetan edota inguruetan eraiki zituzten lehen etxe, txabola eta baserriak. Zurezko zubi zaharra egin zutelarik, hainbat etxe pilatu ziren bi aldeetako zubi buruetan edo bazterretan. Denbora iragan ahala, ibi hitzaren erranahia eguneroko euskaratik desagertu zelarik, heBidasoarritarrek Pausu toponimo berriagoaz ordezkatu zuten. Gaur egun bi-biak erabiltzen badira ere, Lapurdin Pausu da euskaraz erabiltzen dena eta Behobia Gipuzkoan.

Lapurdiko aldean, Urruñako auzo den Pausu delakoan, bada ostatu zahar eta ospetsu bat, gaurko zubi berritik gertu eta pilota-plazaren ondo-ondoan dena. Xaia du izena eta euskal kulturaren arloan aski ezaguna dugu abantzu asteburu guztietan egiten dituzten kontzertu, bertso saio, kantu afari, pilota partidak, mus lehiaketak, liburu eta disko aurkezpenak eta gainerako jarduerak abarats eta oparoengatik. Beñat Elizondo dugu bertako arduraduna, esku-soinuari atxikirik beti den urruñar alai eta prestua. Gizon honen giblean bada talde eragile bat, Bakalau elkarte, beti antolakuntza kontuetan laguntzeko prest dena.

Xaia, lehen erran dudana bezala, zahar-zaharra dugu eta baliteke Pausuko bi edo hiru etxe zaharrenetakoa izatea. Jakin badakigu 1872. urtean Legarralde jaunarena zela eta hor berean kontserba biltoki bat zabaldu zuela. Ondotik, Lapeyre suhiak segida hartu zion. Geroxeago, zaldi-posta gisa erabilia izan zen eta bertan mezulariak eta zaldiak aterpetzen zituzten.

XX. mendearen lehen hamarkadetan Maddi eta Pantxo Hiribarren anai-arrebak hortxe ari izan ziren lanean, antxoa eta sardina biltzen, saltzen eta partitzen. Kont-



serba kaxa handiak nonahi pilatzen ziren Xaiako horma guztiak estaliz. Hortik datorkio, zalantzarik gabe, Xaiari bere izena, biltokia alegia. Pantxoak lehen Gerla Handian zango bat galdu zuen eta ordutik maingui ibili zen.

Geroxeago, 1920an, Hiribarren anai-arrebek Xaiako izkina batean ostatu ttiki bat zabaldu zuten. Bertan sei barrika handi zeuzkaten eta Aljeriatik ekarri arnoa saltzen zuten. Horretarako kamioneta batzuk zerabilzkiten. Horrela kontserba biltoki eta saltoki izatetik ardangela edo arno-soto izatera pasatu zen.

1968an Pablo Ugalde gazte oiartzuarra Xaian hasi zen lanean, lehen urtetan mutil, eta 1980an Pantxo erretretan sartu zelarik, ostatu erosi eta orduraz geroztik nagusi ari izan zen. Urte horretatik aitzina Pablo Ugalde eta Kontxita Oiartzabal senar-emazteek ostatu kudeatu zuten, eta luzaz gainera.

Garai hartan Xaia zurezko zubi zaharraren aitzinean zen, hortik pasatzen zen bidean. Behobiako bi aldeetako gizonak izaten ziren bezero ohikoenak, baita ondo-ondoan zegoen jendarmeriako goardiak ere. Ugaldetarrek denetarik ikusi zuten ostatuan, bertan biltzen baitziren kontrabandistak eta goardiak, eta bertan, ainitzetan mus partida baten inguruan, tratuak egiten baitzituzten. Tokan ere aritzen ziren maiz eta fitxak oraindik Xaian atxikitzen dituzte. Beranduago hasi ziren lehen turistak agertzen eta baita Hegoaldeko iheslari eta errefuxiatuak ere. Ugaldetarrek denetarik ikusteko aukera izan zuten, penak eta pozak, gertaera arruntak eta baita tragediak ere.

Auzoan baziren ostatu gehiago, gaur Muga ostatu den tokian Bar de la Frontière izeneko zegoen, Lulu Erzibengoak eta Battitt senarrak zuzentzen zutena.

Xaiaren ondo-ondoan bada erreka bat, gaur zimenduz estalita dena. Margeriako erreka izena du eta Latsaga baserriko lurretan den iturrian du sorburu. Handik eta Iturbideko karrikatik barna Pausura jaisten da. Itsasgora handiak zirenean, errekek gainezka egiten zuten eta uholdeak izaten ziren. Xaiako barrikak ere hor ibiltzen ziren uretan flotatzen. 2002ko abuztuaren 25ean, eurite handiak izan ziren, ondorioz errekek gainezka egin zuten eta urak ostatura sartu ziren metro bateko goiera hartuz. Beharrik Bidasoa ibaia itsasbeheran zegoen. Gaur egun ere, tarteka ura Xaia barrura sartzen da.

Pausuko lurretan baziren baserriak, baratzeak, lintzurak, ihitokiak eta baita garbileku eder bat ere. Gabarrak ibaian ibiltzen ziren hondarra ateratzen. Pausu aldean Haltzuet biriatuarraren gabarra ibiltzen zen hasieran, eta ondotik biriatuarra ere bazen Pierrot Zubialderena. Hondarribia aldean ibiltzen zen gabarra handiagoa zen, barku itxura zuen eta Amuteko Sagartzazu familiak ku-

deatzen zuten.

Pablo, Kontxita eta haien familia Biriatur bizi ziren eta ostatu lantokitza zuten. Beheko aldea ostatu zen eta goiko estai ganbara edo biltoki gisa zerabilten. Goiko estaiara igotzeko ez zegoen eskailerarik eta horretarako esku zurubi bat zeukaten. Goiko estaiara gauzak igotzeko edo bertatik jaisteko txirrikak zerabilzkiten, gaur mostadore ondoko bazter batean oraindik ikus daitezkeenak.

Ostatuko habeak haritzekoak ziren eta erdi aldean, bost edo sei mahairen artean, brasero bat zeukaten. Hortxe edota berantago egin zuten tximiniaren inguruan esertzen ziren bezeroak goxotasun bila. Beheko sua edo tximinia aski ederra da eta harrizko Zazpiak bat handi batez apainduta dago. Lapurdira pasatzen zen aldiro, hortxe egoten zen Mikel Laboa txopera edo txikito bat edaten; horrela du gogoan Pablo Ugalde nagusi zaharrak, bederen. Donibane Lohizuneko zen Bittor Peder boxeolaria ere tarteka Xaiara sartzen zen, emaztea Pausuko baitzuen.

Garai zaharretan zaldi-posta izandako Margeria baserri Ganix Larretx izeneko bordaria bizi zen, idi-gurdia-ekin astean behin etxetako zikinak biltzen etxez etxe ibiltzen zena. Batzuetan idi-gurdia bakarrik itzultzen zen baserrira, Ganix Xaian eztarria bustitzen ari zen bitartean.

2000. urtean Pablo Ugalde erretretan sartu zen eta ostatu utzi zuen. Urte haietan, Iparraldean, abertzaleek hainbat herritan ostatuak berengain hartu zituzten euskal giroa eta kultura indartu nahian. Adibidez, Hazparneko Xuriatea, Mauleko Zinka, Donapaleuko Elorri, Donibane Lohizuneko Txantxangorri... eta abar. Herriko taberna gisa erabiltzen ziren. Xaia berriz zabaltzeko 120 lagunek dirua jarri zuten. Beranduago, Bakalau elkarteak hartu zuen Xaia ostatuaren antolakuntza eta ordutik hor da euskal kulturaren erreferentzia gisa. Betiro bada zerbait ostatuan, kantua, dantza, musa, bertsoa... Horrela izan da Bakalau elkarteak bereganatu zuenez geroztik eta horrela jarraitzen du egun.

2020an, hau da, heldu den urtean, Xaia ostatuak ehun urte beteko ditu, eta horren karira, jadanik Bakalau elkarte urte osoko kultur jardunaldi berezia prestatzen ari da. Beraz, Bidasoaren bi aldeetako euskaldunok aukera ezin hobea ukanen dugu Xaiako goxotasunean euskal giroaz blaitzeko eta gozatzeko.

Eta zu, irakurle hori, ez bazira nehoiz Xaian izan eta bere giroaz gozatu, orain ukanen duzu parada bertara sartzeko, txopera bat edateko eta, Beñat Elizondoren esku-soinuak animaturik, euskal abesti eder bat kantatzeko. Zatoz! Ez zara damutuko!

Bidasoa ibaiko jaitsiera iritsi da beste urte batez



- G41340: Bidasoako I. jaitsiera Piraguan 1967. urtean.



- G41401 Bidasoako I. Jaitsiera Piraguan 1967. urtean.

Santiagotarrak Kirol Elkarteak Bidasoa ibaiaren III. Herri Jaitsiera antolatu du Bidasoaren Nazioarteko LIII. Jaitsierarekin batera uztailaren 13rako. Iazko arrakasta ikusita, klubak aurtien ere proba errepikatzea erabaki du.

Joan den urteetako egitura jarraituko du probak, hau da, lehiarik gabeko izaera duen jaitsiera proba bat izango da, honela, parte hartzaileek natura eta ibaiaz gozatzeko aukera edukiko dutelakoan. Proban parte hartu ahal izateko igeri egiten jakitea ezinbestekoa izango da eta hortik aurrera parte-hartzea edonorentzako zabalik egongo da, proban edozein mailako piraguismo ezagutzak dituzten pertsonen parte hartu ahal izateko.

Jaitsiera herrikoia uztailaren 13ko arratsaldeko 16:40ak aldera abiatuko da. Parte-hartzaileak San Miguel ingurutik irten eta ibaian behera abiatuko dira, Santiagotarrak elkartek Bidasoa ibaiaren ertzean dauzkan instalakuntzetara heldu arte.

Klubak 10 euroren truke piragua indibidualak edo bikoteka jaitsiera egiteko piraguak utziko dizkie parte hartzaileei, jaitsiera egiteko beharrezkoa izango duten gainontzeko ekipamenduarekin batera. Hortaz gain, 7 euro gehiago ordainduz gero, jaitsieraren aurretik egingo

den herri bazkarian parte hartzeko aukera izango dute ere. Gainera, proba amaitu ostean, Santiagotarrak Kirol Elkartearen instalakuntzak musikaz girotuta egongo dira eta festak bertan jarraituko du.

Jaitsiera herrikoia honen III. edizioan parte hartzeko asmoa dutenek 943632056 telefono zenbakira deituz edo info@santiagotarrak.com posta-elektronikora idatziz izen ematea egiteko aukera izango dute.

Ibilbide historikoa

Enderlaza inguruan abiatu eta Iruneraino iristen den proba honen ibilbideak XIX. mendean tren batek Bidasoa ibaiaren bazterretik burutzen zuen ibilbidea gogorarazten du. Tren hura "Tren Txikito" bezala ezaguna izan zen eta 1872urtean Irungo Udalak tren horren ibilbidea erakitzeke lehen pausuak eman zituen. 40 urteetan zehar zerbitzua eskaini ostean, Gerra Zibileko edo uholdeek eragindako zerbitzu eteteak kenduta, 1956 urteko abenduaren 31ean trenak bere azken bidaia egin zuen.

Emaitza bikainen urtea

Klubean antolatutako proba eta ekintzez gainera, Santiagotarrak elkarteko kirolariek emaitza bikainak bildu dituzte urte honetan zehar. Adibidez, klubaren pistako

selekzioak Mequinezako urtegiaren 64 klub ezberdinetako 591 kirolari lehiatu ostean, Santiagotarrak-Ubycolanek txapelkunorde postua eskuratu zuen taldekako sailkapenean. Hortaz gain, pista sekzioko 5 ordezkari nazioarteko txapelketetan lehiatuko dira udara honetan. Izan ere, Jon Moreno eta Intza Mendez Espainiako III. Maratoi kopan lortu zuten nazioartean lehiatzeko pasea eta Aitor Gorrotxategi, Nerea Garcia eta Telmo Fernandezek ere nazioarte mailan sprint modalitatean haien dohainak erakusteko aukera izango dute.

Ur bizietan, berriz, Klara Olazabal hamargarrena izan zen C1ean Europako Eslalomeko 23 urtez azpikoen txapelketako finalean, finalerdian lehenengoa izan zen. Bestetik, Oier Rodriguez klubeko kirolaria Junior kategorian lehiatu zen. Nazioarteko txapelketa batean hartze zuen lehen aldia izan arren, Oierrek ez zuen zortetik izan eta sailkatu gabe gelditu zen.

Azkenik, arraunaren kasuan, azpimarratzekoa da Bañolasen jokaturako Espainiako Txapelketan Helene Sagarzazu eta Naroa Zubimendik lehen postu eskuratu zutela binakako timonel gabeko sailean kadete femeniaren kategorian.



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Hondarribia Arraun Elkarteko emakumezko arraunlari irundarren bizipenak



Ane Bayo eta Ania Perez Hondarribia Arraun Elkarteak ETE Ligan duen taldeko arraunlari irundarrak dira. Ane Bayo kasualidadez iritsi zen Hondarribia arraun elkarter unibertsitateko praktiketan arrauna probatu ostean, kirol honetan murgiltzea erabaki zuen eta hauxe izango da klub hondarribiarrean egingo duen bigarren denboraldia. Ania Perez, berriz, kanoaren munduan abiatu zen Santiagotarrak Kirol Elkartean eta, urte batzuetan zehar ur-kiroletik aldentuta ibili ostean, Hondarribia Arraun Elkartean sartzera animatu zen. Bakoitzaren istorioa ezberdina bada ere, biok arraunarekiko zaletasuna partekatzen dute.

Nola hasi duzue denboraldia?

Ane: Denboraldia ez da oso ondo hasi, izan ere, lau regata izan ditugu eta horietatik 3tan laugarren gelditu gara eta bakarrean soilik hirugarren. Hemendik aurrera hirugarren postu gehiago lortzea espero dugu Play Off-a saiesteko.

Emaitzetan hobekuntza nabaritzen ari zarete?

Ania: Bai, burua hotz mantendu behar dugu. Igandean laugarren gelditu ginen segundo bateko aldearekin, besteak beste, urduri jarri ginelako eta kontzentrazio faltagatik.

San Juanek liga utzi ostean, norgehiagoka espero zena baino estuago dabil?

Ane: Bai, oso argi gelditu da Oriok eta Arraun Lagunak nahiko maila antzekoa dutela. Guk aurrekoan zortea izan genuen, segundo gutxitara gelditu ginen, eta borroka hor dago.

Ania: Gerta daiteke estropada batetik bestera segundoen aldea asko handitzea edo murriztea, edozer gauza dela medio. Aurkarietatik geroz eta hurbilago gaudela uste dut.

San Juaneko arraunlariak ligako talde ezberdinen artean banatzeak ligaren berdinketa eragin duela uste duzue?

Ane: Bai, adibidez gurera Nerea Perez, orain gure patroia dena, etorri da, beste klubetara arraunlariak joan diren bezala. Hori klubarentzako gehigarri bat izan daiteke, nahiz eta kluba gutziz ez baldintzatu.

Ania: Esan beharra dago sekulako zorte izan dugula Nerea gure klubera etortzearekin, oso arraunlari ona delako eta oso pozik gaudelako berarekin.

Arraunean aritzeko konstantzia mantentzea beharrezkoa da?

Ane: Bai, udako lanaz gain, urtean zehar astero 6 egun entrenatu behar dituzu eta entrenamendu bakoitzak 2

orduko iraupena izan dezake. Arraunean sartzeko denbora, disziplina eta gogoia izatea ezinbestekoa da.

Ania: Esfortzu fisikoaz gain, psikologikoki indarra izatea beharrezkoa da ere. Gainera, guk kanpoan ikasten dugunez, motibazio puntu hori beharrezkoa dugu ikasketekin tartekatzeke.

Txapelketari begira, zein da zuen helburua?

Ane: Azken postu hori saihestea eta, gutxienez, hirugarren postua lortzea.

Orain bi puntuetara zaudete, hurrengo estropadetan puntuak murrizteko gai izango zarete uste duzue?

Ania: Entzuna dudaren arabera, lehengo urtean oso ondo hasi zuten denboraldia eta gero pixkanaka okertzen joan ziren, baina, aurtengo denboraldian gauzak alderantziz gertatu daitezke.

Ane: Aurtengo entrenamenduen programazioa oso ezberdina da joan den urtekoekin alderatuta, serie laburragoak entrenatzen ditugu, baina, intentsitate handiagorekin. Hortaz gain, errekupeazio tartearak luzeagoak dira, beraz, serie laburrekin konpentsatzen ditugu. Honela, denboraldiak aurrera egin ahala, estrategia honek hobetzeko tartea emango digula espero dut.

Neumáticos
txepetxa




**NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK**

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99



Udako giroa nagusituko da datozen hilabeteetan Caser egoitzetan antolatuko diren ekintzetan



Irungo San Pedro eta San Martzial jaiak atzean utzi ostean, udako ekintzen antolaketan zentratuko dira Anaka eta Betharrameko Caser Residencial egoitzetan. Udako hilabeteetarako ekintza bereziak antolatuko badira ere, urtean zehar egiten diren tailer eta bestelako ekintzen erritmoari eutsiko zaie era berean.

Itsasoaz mugarik gabe disfrutatzen aukera

Udako ekintza nagusietako bat "Mugarik Gabeko Bainuak" izena daraman programa izango da. Programa honen bitartez, Anaka zein Betharram egoitza zein eguneko zentroetako erabiltzaileei hondartzara hurbiltzeko erraztasunak ematen zaizkie, udaran eguzkiaz eta itsasoaz gozatzeko aukera izan dezaten. Udako hilabeteetan zehar era honetako bi irteera antolatzen dira astero.

Udako ekintza bereziak

Hortaz gain, bestelako ekintzak antolatzen dira egoitzetan. Esaterako, uztaileko lehen astean udarari ongietorria emateko festa bat antolatu zen Anaka egoitzako terrazan, musika eta mojitoekin. Uztailaren 7an, berriz, San Ferminak ospatu ziren Anakako egoitzan eta 12an eguneko zentroan egindako berritze lanak amaitu ostean, Eguneko Zentroarekin berriz elkartzeko beste festa bat antolatu zen. Gainera, Nagusilan taldearen musika emanaldia eta bingo bereziak izan dituzte ere.

Betharrameko egoitzan udako ekintza bereziak antolatu dira ere. Endanea lore-dendara irteera bat antolatzeaz gainera, egoitzaren alboan dagoen parkeaz gozatzeko irteerak prestatzen dira ere, egoitzako erabiltzaileek naturaz gozatzeko aukera izan dezaten. Hortaz gain, ekintza musikal ugari izango dira udako hilabeteetan zehar. Betharramen gainera, Hondarribiko jaien prestaketa lanei

ekingo diete ere udara amaitu aurretik, egoitzako kantineko aukeratu eta apainketa lanak aurrera eramateko. Bi egoitzetan egingo den beste ekintzetako bat "Paellada" izango da. Betharram egoitzaren kasuan ekintza hau uztailaren 13an egingo da eta Anakako egoitzan, ordea, uztailaren 19an. Abuztuko hilabetera begira aurrerago ezagutzera emango diren ekintza osagarriak antolatzeko asmoa dago.

Tailerrak betiko martxan

Udako erritmoak, ordea, ez du urte osoan zehar Caser Residencial egoitzetan burutzen diren erritmoan eragin. Arte-terapia tailerra izango da udako hilabeteetan zehar bertan behera geldituko den tailer bakarra. Gainontzeko tailer eta ekintzak, adibidez, musika-terapia tailerra, bi egoitzetan egiten jarraituko dira.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA

caser
residencial

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169




CASER BETHARRAM

Txingudi Ikastola HH

HAUR HEZKUNTZAN....

GURASOAK GOMBI DATU DETUOJ

SUBARRALDEAN PARTE HARZERRA



Denborapasak

Arrainak

A L Z F B F G N O N K J D N I U B
 N U E J O A P V O A S N C D G X E
 T Z J G E I K O Q I U G H O Z L T
 X O E T A Y I A L S H Z P A G M X
 O S C Y R T E Y I A H N D K L E I
 A Z V N M Y Z R Z L B B E I M Y T
 B C O M Y K S A N A A D Z A P E X
 C E C V E A A X X Q V O A Y D E A
 M Y R L E C R P O J U P A M U T R
 L O E D O A D Z M Z Y Z Q J P E R
 U I M O E G I E Y B A A X O W I O
 W U G S F L N E I W I A Z C G M A
 I Z Y O L T A Y E Y S L J O A X
 W A E P C V O O Y Q U X I B M E U
 I N W O T Y I V C L Y A A G U X O
 U U E F K V U K Z P Z Y K E U W I
 M L J U B F F U H M E Y S Y J A I

			2	7			
		2	5				8
6							7
		5			8	4	7
3							
7					6		3
			8			2	4
8	6	4					
				5	3	8	9

Legatza, Bakailaoa, Txitxarroa, Sardina, Bisigua,
 Antxoa, Berdela

Sehaska kanten sekretuak aztergai izango dituzte Ruben Mejuto eta Andrea Giraldok



Irungo Udalak Ribera Beken izenpean 2019 urterako aukeratutako ikerketa-proiektu proposamenetako bat da Ruben Mejuto eta Andrea Giraldoena. "Irungo soinu memoria, emakumeak eta muga-arteko nortasuna" izena duen proiektuaren bitartez sehaska kanten azterketan zentratuko dira. Ruben Mejutok ikerketaren zertzelada nagusiak gaintetik azaldu ditu.

Nola ezagutu zenituzten Ribera bekak? Musikan lan egiten duzunean zure burua dibertsifikatzeko beharra ikusten duzu, hau da, nik klaseak ematen ditut, hiru abesbatza zuzentzen ditut eta pianoa jotzen dut talde batean, hortaz bizi naizelako. Bekak bilatzen nabilela Irungo Udalaren beka honekin topo egin nuen eta gaia pentsatzen hasi nintzen.

Zertan datza beka hau?

Beka 9.000 euro dira bi pertsonen artean banatzeko, tandem moduan lan egiten duten antropologo eta artista batentzat. Ikerkuntzazko beka bat da, baina, emaitza adierazpide artistiko baten bitartez erakusteko helburuarekin, hau da, liburu bat idaztea, kontzertu bat egitea edo, azken finean, zerbait praktikoa egitea.

Lan-bikotea osatu aurretik elkar eza-gutzen zineten?

Proiektuari bueltak ematen hasi eta segituan Andrea Giraldoekin harremanetan jarri nintzen, bera Donostia ezagutu nuen musika eta poesia egiteko elkargune batean eta ideia hau sortuta berarekin harremanetan jarri nintzen. Hasieratik oso ondo moldatu gara.

Zein izango da zuen ikerketaren gaia?

Ikerketaren titulua hau da: Irungo soinu memoria eta emakumeak eta muga-

arteko nortasuna. Oso titulu luzea da eta gaia zentratzeko saiakera batean, Irun migraztaileen lurraldea den heinean, hizkuntza zein kultura aldetik aniztasun handia duen herria da eta kulturaren arteko topaleku honetan sortzen diren mailleguak aztertzeri pasa ginen. Hasieran musika herrikoiarekin hasi ginen, gainontzeko biztanleen jatorrietako musikekin nahasteko, baina, gaia zabalegia zenez, haurren kanta tradizionalan zentratzea adostu genuen, sehaska kantetan amaitu arte.

Gai honen inguruan aurretik zerbait ikertu dela ikusi duzue?

Musikeneko lagun batek gradu amaierako lana sehaska kanten inguruan egin zuen eta bere gradu amaierako lana irakurtzen sehaska-kanta edo ahozko transmisioaren inguruan lan egindako autoreak eza-gutzeko aukera izan dut. Izan ere, Euskal Herriaren historian ahozko transmisioa oso garrantzitsua izan da eta, honela, sehaska kanten guk uste baino informazio gehiago daukatela konturatu ginen.

Momentu honetan proiektua zein fase-tan aurkitzen da?

Lehenengo fasea ixtear gaude. Proiektuak, berez, hiru fase ditu. Lehen fasea proiektuaren inguruan gehiago sakontzean datza, informazioa bildu eta kontaktuak lortzeko. Horretarako agente sozial ezberdinetatik informazioa lortzeko elkarrizketak lotzen hasi gara, proiektua eta webgunea (www.isk.com.es) ezagutarazteko.

Zeintzuk lirateke hurrengo faseak?

Bigarren fasearen hasieran elkarrizketak egingo genituzke, bideoa eta audioa jasotzeko, eta, batez ere, orain Irunen kantatzen diren kantetan zentratu nahi gara. Gero partiturak idatzi eta base parametro batekin ikertzera pasako ginateke datu

guztiak ateratzeko. Antropologikoki Andrea fenomenoak sozialak aztertuko ditu, hibridazio kulturarik dagoen ikusteko

Nola aurkeztuko duzue ikerketaren emaitza?

Alde batetik, kartografia soinu-dun bat eratuko dugu, mapa interaktibo moduan, abesti ezberdinen informazio guztia biltzeko. Bestetik, iraunkorra izango den publikazio bat sortu nahi dugu, ikertutako guztia era zientifikoago batean biltzeko. Gainera, nire bikoteak txotxongiloak egiten dituen, bildutako gai eta abestiekin txotxongilo obra bat sortzea gustatuko lit-

zaiguke ere, beste ideia batzuen artean.

Zer suposatuko du zuretzat pertsonalki ikerketa hau burutzea?

Ikerketa honi esker espazio pribatuetan sartu eta agian inork espero ez duen zerbait topatuko dugu, hori jaso eta gizartean zabaltzeko. Globalizazioa dena jaten ari den momentu honetan, denak berdina izan beharko ginatekeela diruen arren, hemengo nortasunari indarra eman nahi diogu, nortasun ezberdinen elkarbizitza posiblea dela erakutsi eta besteetatik ikasteko aukera izateko.

Folder

**Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA**

Kolon ibilbidea, 2
(atzeko aldea)
www.kopiar.net
kopiar@kopiar.net
943 63 93 01



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berria
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Web gunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Labenneko Aquaparkera goaz

Uztailaren 20ean, larunbatean, Labenneko Aquaparkera joateko irteera antolatuko dugu. Autobusa goizeko 9:00etan irtengo da Bixeratik eta 4 euroren truke gazteek autobusa eta Aquaparkerako sarrera eskuratuko dute. 16 urtetik gorako gazteei zuzenduriko irteera da. Izen ematea egiteko izen-emate orriko datuak bete eta gaztelekuan edo Igazteko bulegoan entregatu beharko da. 656 794 372 telefono zenbakira deituz gero informazio gehiago lortu dezakezu.

Izen-emate epea: Uztailak 15, astelehena.

Lan eskaintza: zerbitzariak eta laguntzaileak

Bidasoako eskualdeko ostalaritzako establezimenduetako zerbitzariak eta laguntzaileak bilatzen dira.

- **Betekizunak:** frantsesa eta euskara jakitea baloratuko da.

- **Izen emateko:** Bidasoa Bizirik elkartearen El Espazio webgunearen bidez.



Sorospen eta lehenengo laguntzei buruzko ikastaroa Irunen

- **Datak:** 2019ko uztailaren 15etik 26ra.

- **Ordutegia:** 9:00etatik 14:00etara (astelehenetik ostiralera).

- **Lekua:** Irungo Gurutze Gorria (Euskal Herria hiribideko 14. zenbakian).

- **Nori zuzendua?** 16 urtetik gorakoenentzat.

- **Matrikularen kostua:** 125 euro.

- **Izen emateak:** irun.social@cruz-roja.es

Jaiak Euskadin, Nafarroan, Errioxan, ...

Jaiak uda osoan ospatzen dira. Urtero bezala, udarekin batera gure herri eta auzoetako jaiak ere heldu zaizkigu. Gozatzeko eta ondo pasatzeko egunak dira. Aprobetxa itzazu! Igazteren webgunean (www.irun.org/igazte)



Udagazte! Uztailan Gaztelekura

Martindozenea Gaztelekuak ekintza ugari antolatu ditu uztailako hilabetearen zehar. Ekintzak 12 eta 17 urte arteko gazteentzat zuzendurik daude. Informazio gehiago nahi izanez gero, pasa zaitez Gazte-lekutik edo deitu 943 63 68 26 telefono zenbakira. Aurretiazko izen-ematea eskatzen den ekintzen izen-ematea Gazte-lekuan bertan egin daiteke.

- Uztailak 16, asteartea: Asexorata tailerra 17:30etan Gazte-lekuan.

- Uztailak 17, asteazkena: Topagunea.

- Uztailak 18, osteguna: Irrisarriland-era irteera goizeko 10:00etatik 19:30etara gutxi gorabehera. 10,90 euroren truke autobusa, aseguru eta Baxiko Abentura Plusa sarrera barne.

- Uztailak 19, ostirala: Gazterraza afaria Gazte-lekuan.

- Uztailak 20, larunbata: Munduko Arrozak bazkaria eta ekintza berezia Gazte-lekuan.

- Uztailak 23 eta 24, asteartea eta asteazkena: Kanpaldia goizeko 11:00etatik hurrengo eguneko 12:00ak arte.

- Uztailak 24, asteazkena: Topagunea.

- Uztailak 26, ostirala: Smoothie tailerra 17:30etan gazte-lekuan.

- Uztailak 27, larunbata: Azken festa.



MOLDATU HOME: ZURE ETXEBIZITZA SALTZEKO MODU BERRIA
ZURE ETXEBIZITZA AZKAR SALTZEAREN ABANTAILERAN pentsatu duzu?

Guk bai, harakok dira:

- Komunitateko gastuak, argia, ura, gasa, IBI eta abar ordaintzen utziko dituzu.
- Etxea saldu nahian zabilzan bitartean sortzen diren obrak ez dituzte eragingo.
- Prezio hobereenen salduko dituzu. Zure etxea oso ikusle badago merkatuan, erosiak badak "prezio justeko" aukera badakola. Baina puntu guztien artean inportanteena da, salmeneko arazoa burutik azkar kenduko dituzela eta gehien inportatzen diren gauzei zuzen bideratzea itzuli zaitezkeela.









661875785
(Urtzi)



656748202
(Encarni)

MOLDATU HOMEN adinak guri HOME STAGING biktorekin, zure etxebizitza azkar eta prezio egokian saltzen laguntzen dituztelarik.

Ordinarengatik 4 etxerentzako beste salmenta denbora 16 egun baino gutxiagokoa izan da. Utzi izapuzki espikalzen nola egiten dugun lan!

Dei galtrazu gure telefonozko edo idatzi (info@moldatuhome.com) emailera, eta hurbildu zaitez gure Irungo bulegora, Jose Ramon Agimotxo Alkatza, 1. plaza (Irungo kasinaren sarrera).

Uztailak

12tik

19ra

17

19

Elkano, Lehen Mundu Bira pelikularen proiektzioa

Zer: Irungo Dibulitoon estudioak sortutako filmaren emankizunak egunerero.

Non: Mendibil Merkatalguneko Ocine zinemetan.

Ordua: Eguneroko arratsaldeko 16:00etan.

Oharra: Uztailaren 12an proiektzio berezia egingo da Angel Alonso zuzendariaren presentziarekin.

Filmaren aurkezpena egingo du aretoan emaldia hasi baino lehen.

Antzerkia: "Las amistades de Gertrudis"

Zer: "Las amistades de Gertrudis" antzezlanaren Pollo Rosa produkzio taldearen eskutik.

Non: Eskoleta kalean.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Doan.

Kaleko zinema: "Guardianes de la galaxia"

Zer: James Gunn zuzendariaren "Guardianes de la galaxia" filma.

Non: Junkal plazatxoa.

Ordua: 22:00etan.

Sarrera: Doan.

Iraupena: 122 minutu.



Denborapasen emaitzak

A	L	Z	F	E	F	G	N	O	N	K	J	D	N	I	U	B
N	D	E	J	O	A	P	V	D	A	B	N	O	D	O	X	E
T	Z	J	O	E	I	K	O	O	I	U	G	H	O	Z	L	T
K	O	E	T	A	Y	F	A	L	S	H	Z	P	A	G	M	X
O	S	C	Y	R	T	E	Y	J	A	H	N	D	K	L	E	I
A	Z	V	N	M	Y	Z	R	Z	L	O	B	E	I	M	Y	T
B	C	O	M	Y	K	B	A	N	A	A	D	Z	A	P	E	X
C	E	C	V	E	A	A	X	X	O	V	O	A	Y	D	E	A
M	Y	R	L	E	O	R	P	O	J	U	P	A	M	U	T	R
L	O	E	O	A	D	Z	M	Z	Y	Z	O	J	P	E	R	
U	I	M	O	E	G	I	E	Y	S	A	A	X	O	W	I	O
W	U	G	S	F	L	N	E	I	W	A	Z	O	G	M	A	
I	Z	Y	O	L	T	A	Y	E	Y	S	L	J	O	A	X	
W	A	E	P	C	V	O	D	Y	Q	U	X	I	B	M	E	U
I	N	W	O	T	Y	I	V	C	L	Y	A	R	G	U	X	O
U	J	E	F	K	V	U	K	Z	F	Z	Y	K	E	U	W	I
M	L	J	U	B	F	F	U	H	M	E	Y	S	Y	J	A	I

5	3	8	2	7	9	1	4	6
4	7	2	5	6	1	3	8	9
6	9	1	3	8	4	5	2	7
1	5	5	9	3	8	4	7	2
3	2	9	7	4	5	6	1	8
7	8	4	1	2	6	9	5	3
9	5	3	8	1	7	2	6	4
8	1	5	4	9	2	7	3	5
2	4	7	6	5	3	8	9	1

25

XXI. Santiagoko Kross Herrikoa

Zer: Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak Santiagoko Auzokideen elkartearekin antolatutako kirol proba.

Non: Santiago auzoan.

Ordua: 10:00etan.

Prezioa: 6 euro aurretiatzko izen-ematearekin eta 9 euro probaren egun berean.

Izen-ematea: Kirolprobak webgunean.

25

Kontzertua: Santiagoko Polkak

Zer: Santiagoko Polken kontzertua Irun Hiria Musika Bandaren eskutik.

Non: Santiago auzoa.

Ordua: 12:30etan.

Sarrera: Librea.

28ra arte

Grupo Pintzelen margo erakusketa

Zer: Grupo Pintzel taldearen margo erakusketa.

Non: Laboral Kutxako erakusketa aretoan.

Ordutegia: Asteleheneetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara eta igande eta jaiegunetan 11:30etatik 13:30etara.

Sarrera: Doakoa.

30

Faisaien Irlako Jaialdia: Bakarrizketen jaialdia

Zer: JJ Vaqueroren bakarrizketa, Javi Gonzalezek aurkeztua.

Non: San Martzial Bigarren Batailaren Berrehungarren urteurrenaren plazatxoa.

Ordua: 22:30etan.

Sarrera: Doakoa.

Oharra: Behobia auzoko jaien barneko ekintza.



ezagutu
gure lanak
kode hau
eskaneatuz

2020an ezkonduko zara?

ESTUDIO
GO
VERTM
FOTOGRAFIA

Ezkontza argazkilariak

Letxunborro hiribidea 100,2.

20305 Irun (gipuzkoa)

943 840 113 - 647 930 484

hola@fotogoverbodas.com

www.fotogoverbodas.com